

Sastar batze tasaren aldaketak

2025eko azken hiruhilekoa

2025eko apirilean, martxoaren 20ko 19/2025 Foru Dekretuaren bidez, **Bizkaiko Foru Aldundiak**, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren bitartez, 126/2006 Foru Dekretuaren **aldaketa onartu zuen**, zeinak hiri-hondakinak behin betiko deuseztatzeko tratamenduaren zerbitzuagatik **prezio publikoa arautzen baitu**. Eskumen hori Foru Aldundiari dagokio, hark kudeatzen baititu Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen tratamendurako instalazio eta sistemak; horrela, ingurumen-araudia eta jasangarritasun-printzipioak betetzen direla bermatzen du.

«**Artikulu bakarra.**— Uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak hiri-hondakinak behin betiko deuseztatzeko tratamenduaren zerbitzuari prezio publikoa aplikatzeko erabakia hartu eta araudia garatu zuena. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 1. zenbakia aldatu da, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiak hiri-hondakinak behin betiko deuseztatzeko tratamenduaren zerbitzuari prezio publikoa aplikatzeko erabakia hartu eta araudia garatu baitzen. Honela idatzita geratuko da:

«1. Ordaindu beharreko prezio publikoaren zenbatekoa zerbitzuaren kostu osoa izango da, eta, zehazki, honako hau, tratamenduaren arabera:

- 155,47 euro, BEZik gabe, masan bildu eta amaierako tratamendua jasotzen duten hiri-hondakinen tona metrikoko.
- 92,24 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, berrerabiltzeko edo birziklatzeko tratamendua jasotzen duten hondakin handien kasuan.
- 73,44 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, konposta egiteko instalazioan tratatzen diren hondakin organikoaren kasuan.
- 92,47 euro, BEZik gabe, tona metrikoko, berrerabiltzeko prestatzeko tratamendua jasotzen duten etxeko hondakin txikien kasuan.»

Prezio publikoak eguneratu direnez, Bermeoko Udalak Aldundiari sastarrak tratatzeagatik ordaintzen dion faktura nabarmen handitu da eta joera goranzkoa da. Hasiera batean, kontzeptu horretarako 560.000 €-ko aurrekontua aurreikusi zen, baina, prezio berriak aplikatu ostean, 704.656,79 €-ko kostua kalkulatu zen; hau da, 144.656,79 € gehiago, hasierako aurreikuspenaren aldean. Gero, urrian eginiko berrikuspenean, kalkulu horiek handitu egin ziren, 705.500,00 €-koak izanik. Ondorioz, zerbitzu horri lotutako gastua igotzen ari dela egiaztatu dezakegu.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, tasak zerbitzuaren kostu errealerara hurbildu behar dira, apirilaren 13ko 8/1989 Legeak (Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa) ezarritako baliokidetasun-printzipioa aplikatzeko eta, horrela, toki-erakundeari galerarik ez eragiteko.

«7. artikulua. Baliokidetasun-printzipioa.



Tasaren zerga-egitatea zer zerbitzu edo jarduerari dagokion, zerbitzu edo jarduera horren kostua berdintzera jo behar da tasaren bidez».

Azpmarratu behar da toki-erakundeak egin behar izan duen tasaren igoeran hiru hiruhilekori (bigarrena, hirugarrena eta laugarrena) dagokien zerbitzu-kostuaren igoera metatua sartzen dela; izan ere, prezio publikoen aldaketa urteko bigarren hiruhilekoaren hasieran (apirilean) onartu zen, eta ekitaldiaren gainerakoan izan zituen ondorioak.

Sastarrak batzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen Zerga Ordenantzaren behin betiko aldaketa irailean argitaratu zen, eta laugarren hiruhilekoan sartu zen indarrean. Hori dela eta, aldi horretan sastarrak batzeko tasaren eguneraketa bat onartu zen, % 90 eta % 100 bitarteko igoerarekin, bilketa zerbitzuaren kostu errealerara egokitzeko eta legezko eskakizunak betetzeko.

- 1., 2. eta 3. hiruhilekoetako bilketa: 354.394,71€
- 4. hiruhilekorako aurreikusitako bilketa : 501.302,14€
- Aurreikusitako aparteko bilketa: 146.907,43€

2026

Bizkaiko Foru Aldundiak hondakinak tratatzeko ezarri duen prezio publikoen igoeraz aparte, **7/2022 Legeak, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoak, toki-erakundeak behartzen ditu hondakinen kudeaketa Europako eskakizun berrietara egokitzera**, eta «kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioa aplikatzen du. Horrek eragina du bai sastarrak batzeko moduan, bai zergadunek ordaintzen duten tasa kalkulatzeko eta zerbitzuaren gastua banatzeko moduan.

«11. artikulua. Hondakinen kudeaketaren kostuak.

3. Tokiko eskumeneko hondakinak kudeatzeko kostuen kasuan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean (martxoaren 5eko 2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) xedatutakoarekin bat etorritik, toki entitateek, lege hau indarrean jartzen denetik hiru urteko epean, tasa bat ezarriko dute edo, hala badagokio, ondare-prestazio **publiko ez-tributario bat, espezifikoa, bereizia eta ez-defizitarioa**. Tasa edo prestazio horrek aukera eman beharko du sortutako hondakinen araberako ordainketa sistemak ezartzeko, eta hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko eragiketen kostu erreala – zuzenekoa edo zeharkakoa – islatu beharko dute, kostuaren barruan sartuko direlarik eragiketa horien zaintza, zaborteziak itxi ondorengo mantentzea eta zaintza, kontzientziazio- eta komunikazio kanpainak, eta ekoizlearen erantzukizun hedatua aplikatzearen, materialen salmentaren eta energiaren ondoriozko diru-sarrerak.

Egitura zehazteko eta tasa berria kalkulatzeko, erreferentzia gisa lhobek Udalsarea 2030 Udalerrri Jasangarrien Euskal Sareko toki-erakundeekin elkarlanean prestatutako Gida hartu da. Gida horren helburua da hondakinen inguruko udal-tasak ezartzeko lagungarria izatea eta oinarri gisa erabili ahal izatea eta, horrela, 7/2022 Legean ezartzen diren eskakizunak betetzen direla bermatzea. Era berean, helburu du sortutako hondakinen arabera ordaintzeko sistemak aplikatzen joatea, kudeaketa bidezkoagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko.



2025eko urriaren 24an, zerga-ordenantzaren behin-behineko aldaketa argitaratu zen, 2026an indarrean sartuko dena, eta jendaurrean jartzeko 30 laneguneko epea zabaldu zen, behar beste alegazio egiteko eta informazio guztia zabaltzeko. Zerbitzuaren gastua kalkulatzeko modu berri horren ondorioz, gastu zuzenak eta zeharkakoak kontabilizatu behar dira (bitartekoak eta egiturazkoak). Zerbitzuaren txosten tekniko-ekonomikoan, kostuen egitura eta lotutako diru-sarrerak zehazten dira, hurrengo taulan ikusten denez. Informazio horri esker, zerbitzuaren kostu osoa ezagutuko dugu, eta zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak (egiturazkoak eta oinarrikoak) eta diru-sarreraren arabera bereizita ikusiko ditugu:

Guztizko kostua	2.474.186,36€
Kostu zuzenak	1.928.209,97€
<u>Zeharkako kostuak</u>	<u>579.124.77€</u>
- Egiturazko kostuak - Bitarteko kostuak	450.341,75€ 128.783,03€
Diru-sarrerak	33.147,38€

Nahiz eta zerbitzuaren kostu osoa 2.474.186,36 €-koa den, erabaki da kopuru osoa ez dela tasen bidez bilduko eta tasa egituratu egingo dela, diru-sarrera 2.424.186,36€-ra iristeko. Horren bidez lortu nahi dena da herritarrek kostu osoa jasan behar ez izatea.

Bestalde, legeak ezartzen duen «kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioa betetzeko, tasa bereizi bat aplikatuko da, etxebizitza bakoitzean bizi diren pertsonen arabera.

BIZTANTEEN TARTEA/ ETXEB. BAKOITZEKO	Guztira	3.HILEKO KUOTA
1. tartea: [0-2]	6573	50,84
2. tartea [3-4]	1932	53,34
3. tartea: [5-6]	205	55,85
4. tartea: 7 edo gehiago	23	58,36
Guztira	8733	

Laburbilduz

- 2025eko azken hiruhilekoa: igoera zehatza, Foru Aldundiak hondakinak tratatzeko ezarri dituen prezio publiko berriengatik.



- 2026: 7/2022 Legeak ezartzen du tasa zerbitzuaren kostu errealaaren arabera kalkulatu behar dela, eta «kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioa aplikatu behar dela.

2025ean sastarren tasari aldaketak aplikatu zaizkio, batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu dituen araudi-aldaketen ondorioz, eta, bestetik, zerbitzua Europako eskakizunetara egokitu behar delako, legeak horrela ezartzen duelako. Gobernu-taldeak erabakiak hartu behar izan ditu eta ez da batere erraza izan, onartutako neurriek eragin handia izango dutelako.

Hala ere, lanean jarraituko dugu, kostuaren banaketa «kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioaren arabera egokitzeko eta, horrela, tasa bidezkoago bat ezartzeko eta tasa bera errealtatera egokituago egoteko. Era berean, zerbitzuaren kudeaketa eta kalitatea hobetzeko Udalak herritarren esku jartzen dituen baliabide eta zerbitzuak sendotzeko lanean jarraituko dugu.

TASA 2025EKO 4. HIRUH.

Epigrafeak	altan	Kuota 4. hiruhileko	Diru- sarrera 4. hiruhileko	Urteroko kuota epig. Bakoitzak	1.,2. eta 3.hiruhileko kuoten aldea	IGOERAREN %
Etxebizitzak	8729	30,00	261.870,00	120,00	3,53	13%
Lokal hutsak	559	23,08	12.901,72	92,32	11,54	100%
Hutsik ez dauden lokalak	212	69,58	14.750,96	278,32	34,79	100%
Garajeak 3 edo 4 ibilgailu	181	129,86	23.504,66	519,44	64,93	100%
Garajeak 1 edo 2 ibilgailu	127	93,24	11.841,48	372,96	46,62	100%
Merk/kiosko < 100m2 (6.6.2)	104	144,15	14.991,91	576,61	68,28	90%
Uleapaindegi / gimnasi/edertze	74	160,84	11.902,16	643,36	80,42	100%
Beste bulegoak/loteriak/autoeskolak	70	140,00	9.800,00	560,00	70,00	100%
Garajeak irabazi asmo gabekoak	59	91,72	5.411,48	366,88	45,86	100%
Barrak eta tabernak	55	216,33	11.898,37	865,34	102,47	90%
Ostatuak <= 10 pertsona	52	133,00	6.916,00	532,00	63,00	90%
Merk/kiosko > 100m2 (6.6.1)	45	191,10	8.599,59	764,41	90,52	90%
Industriak/tailerrak (11.5.1)	45	321,04	14.446,80	1.284,16	160,52	100%
Mat biltegiak-ez saltzeko	44	160,84	7.076,96	643,36	80,42	100%
Txokoak/erretiratuaren klubak	42	107,64	4.520,67	430,54	50,99	90%
Trastelekuak	40	17,30	692,00	69,20	8,65	100%
Garajeak 4-26 ibilgailu	38	160,84	6.111,92	643,36	80,42	100%
Itsasontziek loiak	35	160,84	5.629,40	643,36	80,42	100%
Herri barruko industriak/tailerrak	33	296,18	9.773,94	1.184,72	148,09	100%
Garajeak >= 26 ibilgailu	31	202,38	6.273,78	809,52	101,19	100%
Janaridendak/haragi/arrain	30	169,99	5.099,79	679,97	80,52	90%
Zehazki tarifatu gabeak	28	92,68	2.595,04	370,72	46,34	100%
Biltegiak (11.5.2)	19	173,34	3.293,46	693,36	86,67	100%



Haginlariak/mediku zentroak	18	194,10	3.493,80	776,40	97,05	100%
Kafetegiak, pub-ak, jantokiak	13	232,66	3.024,52	930,62	110,21	90%
Jatetxeak	12	449,41	5.392,88	1.797,63	212,88	90%
Akademiak/hautzaindegiak	11	140,00	1.540,00	560,00	70,00	100%
Fruta dendak	11	199,75	2.197,22	798,99	94,62	90%
Banketxeak	11	327,60	3.603,60	1.310,40	163,80	100%
Zentro ofizialak -kofradia	9	188,96	1.700,64	755,84	94,48	100%
Ostatuak > 10 pertsona	8	152,00	1.216,00	608,00	72,00	90%
Atunzale enpresak	7	327,60	2.293,20	1.310,40	163,80	100%
Herri barruko jarduera/biltegiak	7	162,68	1.138,76	650,72	81,34	100%
Ikastetxeak/hezkuntza zentroak	6	171,18	1.027,08	684,72	85,59	100%
Botikak eta ortopediak	6	197,96	1.187,76	791,84	98,98	100%
Supermerkatuak > 400m2	5	702,05	3.510,25	2.808,20	332,55	90%
Oinetako/iturgin/altzariak	5	173,34	866,70	693,36	86,67	100%
Mediku kontsultak	4	154,32	617,28	617,28	77,16	100%
Supermerkatuak (201-400m2)	4	486,31	1.945,22	1.945,22	230,36	90%
Anbulategia/arrantza mutua	2	194,10	388,20	776,40	97,05	100%
Petrolioaren eratorkinak	2	163,78	327,56	655,12	81,89	100%
Ibilgailu erakusketa/garbi	2	162,34	324,68	649,36	81,17	100%
Supermerkatuak < 200m2	1	364,97	364,97	1.459,88	172,88	90%
Diskotekak/jai aretoak	1	240,50	240,50	962,01	113,92	90%
Garraio publikoen bulegoa	1	177,18	177,18	708,72	88,59	100%
Gasaren matxixtako lur	1	4.822,05	4.822,05	19.288,21	628,96	15%
TOTALAK			501.302,14			

2026KO TASA

Etxebizitzak: etxebizitza bakoitzean bizi den pertsona kopuruaren arabera.

BIZTANTEEN TARTEA/ ETXEB. BAKOITZEKO	Guztira	3.HILEKO KUOTA	HIRUHILEKO DIRU SARRERA	URTEKO DIRU SARRERA
1. tarte: [0-2]	6573	50,84	334.147,66	1.336.590,64
2. tarte: [3-4]	1932	53,34	103.059,86	412.239,43
3. tarte: [5-6]	205	55,85	11.449,42	45.797,67
4. tarte: 7 edo gehiago	23	58,36	1.342,23	5.368,94
Guztira	8733		449.999,17	1.799.996,68

Gainerako epigrafeak



EPIGRAFEA	ALT.	2026rako PROP. TASA	HIRUHIL. DIRU SARRERA	URTEKO DIRU SARRERA	2025- 4. HIRUHIL. KUOTAK	2025- 1. 2. 3. HIRUHIL. KUOTA	ALD.	ALD. %A
1.Epigrafea: Etxebizitzak								
1.1- Etxebizitzak	8733	51,53	449.999,17	1.799.996,68	22,76	26,47	25,06	95%
2. Epigrafea: Ostatuak								
2.1- Etxebizitza turistikoak	50	90,79	4.539,49	18.157,96	133,00	70,00	20,79	30%
2.2- Bestelako ostatuak (nekazaritza-turismo, hotel, apartamentu..)	8	90,79	726,32	2.905,27	152,00	80,00	10,79	13%
3. Epigrafea: Ikastetxeak								
3.1- Ikastetxeak, Casa del Niño, lanbide heziketako zentroa eta institutua	6	107,98	647,87	2.591,48	171,18	85,59	22,39	26%
3.2- Akademiak (edozein motatakoak) eta haurtzaindegiak	11	99,38	1.093,18	4.372,72	140,00	70,00	29,38	42%
4. Epigrafea: Edertasun- jarduerak								
4.1- Edertze aretoak, gimnasioak, ile-apaindegiak, bizartegiak eta gorputzaren hobekuntzara zuzendutako beste edozein jardura	68	116,57	7.926,94	31.707,76	160,84	80,42	36,15	45%
5. Epigrafea: Mediku kontsultak eta zentroak								
5.1- Mediku kontsultak	4	133,76	535,04	2.140,18	154,32	77,16	56,60	73%
5.2- Sorostegiak, mediku zentroak, odontologia zentroak	19	133,76	2.541,46	10.165,85	194,10	97,05	36,71	38%
5.3- Anbulatorioa eta arrantzaileen mutua	2	133,76	267,52	1.070,09	194,10	97,05	36,71	38%
6. Epigrafea: Merkataritza orokorrean								
6.1- Fruta- dendak	10	131,61	1.316,13	5.264,51	199,75	105,13	26,48	25%
6.2- 200 m2-rainoko supermerkatuak	1	314,24	314,24	1.256,97	364,97	192,09	122,15	64%
6.3-201 eta 400 m2 bitarteko supermerkatuak	4	417,37	1.669,48	6.677,92	486,31	255,95	161,42	63%
6.4- 401 m2-tik gorako supermerkatuak	5	606,45	3.032,24	12.128,94	702,05	369,50	236,95	64%
6.5- Elikagaien arloko bestelakoak, harategiak, arraindegiak	30	131,61	3.948,38	15.793,52	169,99	89,47	42,14	47%
6.6.1-100m2 tik gorakoak	45	120,87	5.439,14	21.756,56	191,10	100,58	20,29	20%
6.6.2-100m2tik beherakoak	104	95,09	9.889,04	39.556,17	144,15	75,87	19,22	25%
6.8- Botikak eta ortopediak	6	120,87	725,22	2.900,88	197,96	98,98	21,89	22%
7. Epigrafea: Ikuskizun eta aisialdiko establezimientuak								
7.1- Zineak eta antzokiak	-	-			-			
7.2- Diskotekak eta	1	185,33	185,33	741,32	240,50	126,58	58,75	46%



dantzalekuak								
7.3- Jolastokiak	-	-			-			
8. Epigrafea: Jatetxeak eta tabernak								
8.1- Jatetxeak	13	268,35	3.488,52	13.954,08	449,41	236,53	31,82	13%
8.2- Kafetegiak, whiskitegiak, pubak, hanburgeseriak eta jatetxetzat hartu ezin daitezkeen jantokiak	12	159,54	1.914,53	7.658,12	232,66	122,45	37,09	30%
8.3- Tabernak	55	159,54	8.774,93	35.099,70	216,33	113,86	45,68	40%
8.4- Txokoak eta erretiratuak klubak	42	76,52	3.213,98	12.855,91	107,64	56,65	19,87	35%
9. Epigrafea: Bulegoak								
9.1- Banketxeak	11	199,08	2.189,86	8.759,42	327,60	163,80	35,28	22%
9.2- Beste bulego batzuk, autoeskolak, loteria eta gainerako joko saltokiak	72	85,63	6.165,59	24.662,37	140,00	70,00	15,63	22%
9.3- Garraio publikoen (trena, autobusa) bulegoak	1	85,63	85,63	342,52	177,18	88,59	-2,96	-3%
9.4- Atuneroak	7	199,08	1.393,54	5.574,18	327,60	163,80	35,28	22%
10. Epigrafea: Beste jarduerak								
10.0- 26 ibilgailu eta gehiagorentzat lekua daukaten garajeak	33	133,76	4.414,12	17.656,48	202,38	101,19	32,57	32%
10.1- 4tik 26 ibilgailurako edukiera duten garajeak	38	107,98	4.103,18	16.412,71	160,84	80,42	27,56	34%
10.2- 3 edo 4 ibilgailuren gordelekua edo lokalak 60m ² edo gehiago	185	79,62	14.729,19	58.916,74	129,86	64,93	14,69	23%
10.3- 1 edo 2 ibilgailu bakarrik gordetzeko edukiera daukanean eta lokalak 60m ² baino gutxiago daukanean	128	58,99	7.550,84	30.203,36	93,24	46,62	12,37	27%
10.4- Irabazteko asmo bako auzokide elkarrekin garajeak	59	58,99	3.480,46	13.921,86	91,72	45,86	13,13	29%
10.5- Zentro ofizialak eta Kofradia	9	120,87	1.087,83	4.351,31	188,96	94,48	26,39	28%
10.6- Itsasontzien lonjak	37	90,79	3.359,22	13.436,89	160,84	80,42	10,37	13%
10.7- Materialak eta ekoizkinak biltzeko bakarrik diren industria eta merkataritza lokalen biltegiak	42	90,79	3.813,18	15.252,72	160,84	80,42	10,37	13%
10.8- Lokal hutsak	560	11,54	6.462,40	25.849,60	23,08	11,54	0,00	0%
10.9- Nekazarien sindikatua, garraio biltegiak, ardo eta edariak banatzeko biltegiak	-	-			-			
10.10- Petroliotik eratorritakoen zerbitzuak	2	90,90	181,80	727,18	163,78	81,89	9,01	11%
11. Epigrafea: Industriak, biltegiak eta tailerrak								
11.1- Herri barruko industriak eta tailerrak	31	164,38	5.095,78	20.383,11	296,18	148,09	16,29	11%



11.2- Herri barruko jardueren biltegiak	8	90,79	726,32	2.905,27	162,68	81,34	9,45	12%
11.4- Oinetako, altzari, tapizeria, iturgintza tailerrak	4	95,95	383,80	1.535,20	173,34	86,67	9,28	11%
11.5.1- Industriak eta tailerrak	45	178,18	8.017,97	32.071,90	321,04	160,52	17,66	11%
11.5.2- Biltegiak	19	95,95	1.823,05	7.292,20	173,34	86,67	9,28	11%
11.6- Ibilgailuak erakusteko eta garbitzeko lokalak	2	90,79	181,58	726,32	162,34	81,17	9,62	12%
11.7- Gasaren Matxixakoko lur-planta	1	4.425,01	4.425,01	17.700,04	4.822,05	4193,09	231,92	6%
12. Epigrafea: Zehazki tarifatu ez direnak								
12.1- Zehazki tarifatu ez direnak	28	66,73	1.868,32	7.473,29	92,68	46,34	20,39	44%
13. Epigrafea: Lokalak								
13.1- Hutsik ez dauden lokalak	212	56,48	11.974,06	47.896,23	69,58	34,79	21,69	62%
13.2- Etxebizitzaren eranskinak ez diren trastelekuak	40	8,65	346,00	1.384,00	17,30	8,65	0,00	0%
GUZTIRA			606.046,88	2.424.187,51				

